

Tokiko ekoizpenaren aldeko konpromisoa indartu du

**EROSKI-K 494 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOREN
EROSKETAK EGIN DIZKIE
EAE-KO HORNITZAILE KOMERTZIALEI 2024AN**

- **EAEko 365 hornitzaile komertzialekin lan egiten du, eta 8.000 produktu inguru merkaturatzen dizkie.**
- **EROSKIk lehen sektorearen iraunkortasunean laguntzen du, eta hitzarmenak ditu EAEn nekazaritzako elikagaien arloan diharduten elkarte ugarirekin**
- **Igoerarik handienak produktu hauetan izan dira: barazkiak, patata, behi haragia, haragi ekoizpenak, gaztak eta plater prestatuak**

Elorrio (Bizkaia), 2025eko maiatzaren 20a.- [EROSKI](#)k 494 milioi euro baino gehiago erabili zituen EAEko hornitzaile komertziaiei tokiko produktuak erosteko 2024an. EROSKIk EAEko 365 hornitzaile komertzialekin lan egiten du, eta haien 8.000 produktu baino gehiago merkaturatzen ditu. Produktuok toki nabarmenduak dituzte dendetan, batez ere sasoian sasoiko frutek, berdurek eta barazkiek.

Era berean, EROSKIk apustu egiten du tokiko hornitzaileekin lankidetzaz estutzearen alde. Horri esker, luzerako hitzarmenak lortu ahal ditu, eta, horrela, eskualdeko garapen agroalimentario eta sozioekonomikoari lagundu.

EAEan iaz erositako tokiko produktuei dagokienez, igoyerarik handienak barazkietan eta patatan izan ziren (%6 baino gehiago), batez ere udako hilabeteetan, *EROSKI Natur Eusko Label* markako barazkien edo *Euskal Baserri* patataren kanpainei esker.

Horien ondoren, behi haragiaren eta haragi ekoizpenen erosketak datoz, %8 handitu direnak. Katetoria batean baino gehiagotan sakabanatuta daude; izan ere, EROSKIk Euskal Okela behi haragia eta Eusko Label markako elaboratuak saltzen ditu [HAZI](#)rekin lankidetzan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Nabarmentzekoa da, era berean, nola igo diren %10 baino gehiago gazten erosketak. EROSKI *Euskal Gaztak* proiektuaren alde egiten du, zeinaren helburua baita Eusko Labela duten Euskal Herriko gazta aldaera autoktonoak berreskuratzea, eta, aspaldiko urteetan, hitzarmena egina du Idiazabal jatorri izenarekin.

Azkenik, dauden kontsumo ohitura berriak ikusirik, nabarmendu egiten dira indarra hartzen ari diren kategoria batzuk, hala nola esne freskoa, %12 igo dena, eta sukaldaritzako soluzioak, %14 igo direnak.

"Urtero indartzen dugu tokian tokiko ekoizleen aldeko apustua. Hori ikus daiteke, euskal ekoizleei egindako erosketak handituz doazelako. Gaur egun, hurbileko produktuen eta sasoiko freskoen eskaintza zabala bihurtu da gure denden bereizgarririk printzipalenetakoa. Horretaz gain, aurrezpenaren alde apustu egin dugu. eta gure prezioen lehia hobetu, bai eta bultzada eman ere gero eta pertsonalagoak diren sustapenei", esan du EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

Hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin

EROSKI lankidetzak hitzarmen bat du Eusko Jaurlaritzarekin nekazaritzako elikagaien industria indartu eta garatzeko hiru lurraldeetan. Bi erakundeek 2022ko maiatzean sinaturiko bigarren hitzarmena da. Horren bitartez, EROSKI konpromisoa hartzen du tokiko produktua sustatu eta bultzatzeko, eta gainera martxan jarri du, tokiko ekoizleen kolektiboari lagun egiteko programa: horren helburua da ekoizpen iraunkorragoa lortzea eta produktuen elikagai kalitatea ziurtatzea.

EROSKI lankidetzan da BIKAINAK elkartearekin ere —euskal enpresa talde bat, apustu egiten duena EUSKO LABEL, AGB eta jatorri izeneko berme zigiluak dituzten produktuen alde—, nola eta Bertako Txokoa izeneko altzari espezifikoa instalatuta EAEn duen denda sarearen zati batean. Horretaz gainera, planean, jasota datoz bezeroentzako sustapen kanpainak, dastatzeak eta ekitaldiak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

2022tik, berriz, EROSKIk tresna bat du EAEko nekazaritzako elikagaien ekoizleen zerbitzura: *Tokiko hornitzaileei lagun egiteko programa*. Ekimen horrek zerbitzu ematen die nekazaritzako elikagaien arloan diharduten ekoizle txikiei, eta helburu du enpresei lagun egitea beren zereginetan, bai ingurumenaren arloan, bai arlo sozialean eta bai gobernu korporatiboan. Horrekin, EROSKIk erraztasunak ematen dizkie egokitu egin daitezen arau betebeharrak berrietara eta kontsumitzaileek iraunkortasunaren arloan egiten dituzten eskari gero eta handiagoetara. Alde horretatik, EROSKIk [Basque Food Cluster](#)rekin lan egiten du prestakuntza ekintzak gauzatzeko. Gaur egun, EROSKIk 100 partaidetik gora ditu EAEn programa horretan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)